

EGUBERRI KANTAK



¡Zer ote da lurrean
gaur gertatzen dana?
¡zer albiste on dator
Jaungoiko laztana?

¡Zeñek alaitzen du gaur
Belengo atadia?
¡Zerk onela sendotzen
Kristauen adia.....?

Ausen bai dala ziñez
entzute gozua,
aingeruen kantakin
chirola soiñua.

Zeru biurtu dala
munduak diruri,
ainbeste zorion da
goitikan isuri.

¡Poztu bitez biotzak,
dena poztu bedi,
aitor dezagun poz au
orain eta beti!

Jauna gizon egin ta
gure mesedian
zerutatik eldu da
onunz gaberdian.

Zarrak eta gazteak
gizon ta emakume
aurtsoa maitatzera
goazen geldi gabe.

¡Jaiki; eliz aldera
laistertupausuak,
goazen zabaldultzera
biotz ta besuak!

Gozoago kemea
likurtaren baiño
igo zangun otoitza
zeruetaraiño.

Artzai taldeak ere
Belena dijoaz
ofrendak osatzera
mañureta joaz.

Agur mundu ontako
Maisu gidaria
aiño bat ere ez dezun
ispillu garbia.

¡Betoz Jesus-en gana
errege naroiak!
¡betoz bere oñetan
uztera koroiak!

Len aitormen gabeka
Jaun agintariak

arriturikan dauzka
aur jaio berriak.

¡Zer balió du oien
oparotasunak!
¡zer oien tronu edo
jarkoi urredunak?

Dena lezakeana
izanik aurtsoa
oian ordez opa du
ganbela-zokoa.

Jaio eta Jesus-en
lenengo atsegiña
izandu da, kristauak,
irintsi samiña.

Reste gizonak ainbat
ez balitz bezela
billusik arkitzen da
Jaunik aundiena.

Guregan daukalarik
amorio garra
otzikaraz or dago
ume zerutarra.

Gu salbatzeagatik
emen sortu zera
¡O Jesus maitatia!
¡Jesus biotz bera!

Bear aiñ ez izanik
ordaiña laburra
¡Jauna entzun iguzu
otoitza samurra!

**Jaun zerukoa eta
lurraren jabea,
izar dizdizaria
illun-kentzallea.**

**¡Arren, izan gaitzazu
Jaungoiko berdiña
eriotzako orduan
zuretzako diña!**

.....

**¡Poztu bitez biotzak,
dena poztu bedi,
aitor dezagun poz au
orain eta beti.**

EMETERIO ARRESE.

